

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUN SAILA

Ondare Kudeaketa

Vitoria-Gasteizko Zuhatzuko 53. sektoreko C1 lursailari dagokion erregistro-funtsa lehiaketa bidez besterentzeko prozedura hutsik geratu dela deklaratzeko eta zuzenean esleitzeko epea irekitzea (69/ 2024 dosierra)

2024ko irailaren 27an, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen Udalbatzaren ondasun eta esku-bideen inbentario orokorrean I-3896 gisa aipatutako funtsa lizitazio bidez besterentzeko baldintza-agiria onestea. Funts hori 3. Jabetza Erregistroan inskribatuta dago, honela: "konpentsazio-proiektuan Vitoria-Gasteizko Zuhatzuko 53. sektoreko C1 gisa identifikatutako bizitegi-funtsa; 600 metro koadroko azalera du, eta 200 metro koadro eraikiko aprobetxamendu eraikigarria dagokio."

Egun horretan dosierra abiarazi zen, eta agindua eman zen hura argitaratzeko eta lizitazio-prozedura irekia zabaltzeko deialdi publikoaren bidez.

Erabaki hori betetze aldera, lizitazioaren deialdia egin zen eta 2024ko azaroaren 9ko ALHAOn argitaratu. Eskaintzak aurkezteko epea 2024ko azaroaren 29ko 13:00etan amaitu zen, eta epe horretan ez zen proposamenik jaso.

Administrazio Publikoen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 137.d artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 117.d artikuluan ezarritakoaren ildotik, besterentzeko sustatu diren enkante edo lehiaketak eman gabe uzten direnean, zuzenean esleitzea erabaki ahal izango da, betiere enkantea edo lehiaketa egin zenetik urtebete baino gehiago igaro ez bada; besterentze-prezioa ezin izango da izan kasuan kasuko baldintza-agirietan lizitazio-tasa gisa ezarritakoa baino txikiagoa.

Adierazitako guztia kontuan izanik eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera eskumena Tokiko Gobernu Batzarrari dagokionez, Ogasun Saileko zinegotzi ordezkariak erabaki proposamen hau egiten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki-proposamena

Lehena. Gobernu Batzarraren 2024ko irailaren 27ko erabakiaren bidez Vitoria-Gasteizko Zuhatzuko 53. sektoreko C1 lursailari dagokion erregistro-funtsa lizitazio bidez besterentzeko hasitako prozedura hutsik geratu dela deklaratzeko, ez baita lizitatzailerik aurkeztu.

Bigarrena. Zuzeneko esleipenerako epea irekitzea. Urtebeteko epea emango da iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, eta besterentze-prezioa ez da inola ere izango baldintza-agirietan lizitazio-tasa gisa ezarritakoa baino txikiagoa. Eskaintzak formatu berean eta baldintza-agirian ezarritako baldintza berberetan aurkeztuko dira.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn, udalaren iragarki-taulan eta udalaren webgunean argitaratzeko agintzea, eta dosierra jendaurrean jartzea.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko abenduaren 19an

Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria
JON ARMENTIA FRUCTUOSO